

# AUNTZA BARATZAN, AKERRA EZPATA-DANTZAN...

Ene umetxo eskeldun maiteok:

Ipui au, antxiñako denboretan gertatua da: abereak (auntzak, txerriak, txakurrak eta abar) itz egiten zutenean.

Ixillik danok, eta entzun.

Ara bada: Ostegun arratsalde batean, bere amak esan zion Martintxo'ri:—Ara ume, eskolarik ez dezun ezkerok, auntza larrera eraman bear dezu; goiz guztian ezer ere jan gabe dago-ta, goseak iltzen gaxoa. Illuntzerarte ez etorri; euki ezazu larrean lekuak aldatuaz, toki bateko belarra jaten duanean, beste batera aldatuaz, eta illuntzian etxera. La biontzako lañi esne ematen digun. Eraman zeuk jateko ogi zati bat (orduan ez bait-zan ez txokolaterik, ez koipetxorik, ez platanorik eta orrelako beste gauzarik gure etxietan), eta bai aruntzean ta bai onuntzean soka laburraz erabili, inoren baratza ta soloetan ezer jan ez dezan eta kalterik egiñ.

—Bai, amatxo, erantzun zion Martintxok. Au da poza! eskolara baiño naiago dut mendira juatea, gaur dagon egualdi eder onekiñ batez ere. Gaiñera. «Kristau Ikasbidea» eramango det an ikasteko. «Jesukristo nere Jauna» iganderako ikasi bear degu-ta.

—Ederki: Artu auntza, ta jo aurrera, ta kontuz inoren lurretan!

Martintxo'k artu zuan amak eman zion ogi puska; sartu zuan praken patrikaran «Kristau Ikasbidea»; jetxi zan okullura, artu zuan auntza eta erten zuan mendirantz.

Auntz gaxua, goiz guztian ezer jan gabe; bee! ta beeece! deadarka eztarri guztia ziaro legortua zuan, eta sabela berriz dana irekita. Augaitik, bidean lenengoz billatu zituan asendi ta belarretatik ezin zuan Martintxo'k aldatu-erazo.

—Guazen. «Beltxaran»! Guazen ariñ; abek baiño jaki ederragoak billatuko ditugu-ta, esaten zion Martintxo'k; baiña «Beltxaran'ek» gor-entzun eta nekez egiten zuan aurrerantz.

Baiña alakoren baten, mutilltxoaren esana egitearren bezela, utzi zituan bide ertzeko sasi mastrakak, baiña aurrera bearran, ariñ-ariña sartu zan ezkerreantz

zegoan baratza batera, eta bertako azaburu zuriak jaten asi.

Martintxo dana estututa asi zan sokatik tiraka ta auntzari deadarrez. Ez alperrik! «Beltxaran» azata guztia beria ba'zukean bezela, aza-buru bati puska bat, beste bati beste bat, danak alperrik galdu bear zituan. Auntza baratan...!

Martintxo berriz, izerdi ta patsetan, sokatik teinka, «Beltxaran»! baiño «Beltxaran»! orroaka, malkoak begi ertzean zituala. Alperrikako lana. «Beltxaran'en» soka eskue-tan gelditu zitzaion eta andik aurrera ezatza guztia beretzat, «Beltxaran'entzat» esan nai del.

Martintxo'k, bere alegiñak alperrikakoak zirala siñistu zuanean, erten zuan baratzatik, eta, bide ertzean zegoan arri zabal baten gaiñean exeri, ta negarrari ekin zion.

Orra bat negarrez.

Txakur bat igaro zan andik, eta mutilltxoa negarrez ikusirik, galdetu zion:

—Mutilltxo, zer dezu orrela negar egiteko?

—Zer detan? Zer detan galdetzen didazu? Auntza sartu zait inoren lurrean, eta begira eyozu; sekulako kalteak egiten ari da. Aza guztiañ jan edo lardazu bear ditu, eta nik eziñ atera.

—Ori baiño ez bada, ez negarrik egiñ, neuk aterako det auntza ta, esan zion txakurrak; eta abiada baten sartu zan baratzan, eta auntzera urreraturik; *Gua, uau, gu u u, guan!!* egin zion gogorki.

Baiña «Beltxaran'ek» aoan zeukan aza orri zuria iruntsiaz *bee! beeece! be eee!* erantzun zion. Eta aza batetik bestera, saltoka iges egiten zion txakurrari.

Txakurra, lotsatu edo egin zan (ez bai-zuen alakorik uste) eta buruz bera erten egin zuan baratzatik. Jarri zan Martintxo-ren ondoan, arri gaiñean eta negarrari ekin zion.

Orra bi negarrez.

Onetan zegozala igaro zan andik oillar aundi, arro, eder bat eta txakurrari galdetu zion: Zer dezu orrela negarrez ekiteteo?

Eta txakurrak erantzun zion:

—Nik negar dagit mutilltxua negarrez ari dalako, eta mutilltxoak negar dagi auntza inoren lurrean sartu ta sekulako kalteak egiten ari dalako ta berak eziñ atera.

—Ori baiño ez bada, ez negarrik egiñ, esan zion oillarrak; auntza neuk aterako det-eta.

Au esanaz batera sartu zan baratzan, aza artean, eta auntzen aurrez-aurre ardatza baiño zuzenago gorputza zuelarik, lepoa luzatu, ta pixka bat atzerantz burua botata, *kírrukíuu!!* egiñ zuan arnas luze-luze batean. Eta berriro arnasa artu zuanean *ko, ko, ro, ko, ko, ko*, egin zion, kanpora emendik! aginduaz bezela.

Baiña auntzak irri-barrezka, *Beeee, beee!* oillarrari arpegira begiratuaz. Eta jan da jan azaak.

Oillarrak, au ikusirik, bira osoa eman eta andiki-andiki guda aundi bat irabazi ba'zuan bezela, baratzatik erten zuan. Baiña beste lagunak negarrez ikusi zituanean, bera ere exeri zan arri gaiñean eta negarrari ekiñ zion.

Orra iru negarrez.

Laster igaro zen andik asto beltz bat eta danak negarrez ikusirik, oillarrari galde egin zion: —Zer dala-ta ari zera orrela negarrez?

Eta oillarrak zotinga erantzun zion:—Nik, negar dagit, txakurra negarrez ari dalako; eta txakurrak negar dagi mutilltxoa negarrez ari dalako; eta mutilltxoak negar dagi auntza iñoren baratzan sartu ta iñun diran kalteak egiten ari dalako, eta berak eziñ atera dualako.

—Ori lezute gutzia? Ez orregaitik negarrik egiñ —erantzun zion astoak—; auntza neuk aterako det-eta.

Eta ben-ben, (astoak oso abere serioak dira) auntza zegoan lekura joan eta aza eder aierri begiratzeke:

—Aizu, kanpora emendik, ariñ baiño ariñago baiña. Eta auntza bildurtzegaitik edo, bere aginduari indar andiagoa emategaitik edo, *A, aa, ua, aa brrrr!* arrantza andi bat egiñ zion, aza zabal-zabalik, ortz aundi ta agiñ izugarriak erakutsiaz.

Baiña auntzak: —Zugatik ajola gutxi neri *Beee, be, beeeee!* erantzun zion. Eta jan da jan azaak.

Astoak, arantz juan zan bezelaxe ben-ben, azaburu eder ayeri begiratu ere egiñ gabe (naikoa egiñ zuan alayaña!) erten zuan baratzatik, exeri zan arrigaiñean oillarraren ondoan eta negarrari ekiñ zion.

Orra lau negarrez.

Andik denboratxoa ara nun datorren erle bat egazka, ta ainbeste zotiñ entzun zituztean galde zion astoari: —Zergaitik dagizu era orretan negarrez?

Eta astoak, sudurretik aize ikaragarria botiaz erantzun zion:

—Nik negar dagit, oillarra negarrez ari dalako; ta oillarrak negar dagi, txakurra negarrez ari dalako; ta txakurrak negar dagi, mutilltxoa negarrez ari dalako; ta mutilltxoak negar dagi, auntza iñoren baratzan sartu ta kalte aundiak egiten ari dalako, ta berak eziñ atera dualako.

—Ez orregaitik negarrik egiñ, esan zion eileak, auntza neuk aterako det bada ta.

Eta erleak au esan zuanean, lau negartiak bat-batean negar egiteari utzi ta parrezka asi ziran. Parre santzo batean.

Erlea ayen parreari jaramonik egin gabe, zuzen-zuzen «Beltxaran'ena» joan eta belarri inguruan egaz asi zitzaion burrundara batean. *Uuu, uuuu, uu*, egiñaz.

«Beltxaran, aserraturik adarrakaz topeka asi zan; baiña ez egoan erletxoari tope egiterik. Ain zan gauza txikia,

Erleak, belarri batetik bestera gelditu gabe: «*Durun, run, runrun, run, uuuuuuuu*».

Apurtzo batean adar gaiñean jarri ta ixiltzen zan. Orduan auntza, bere etsaia juana zalakoan, aza jaten asten zan. Baiña erleak beriala belarri inguruan «*Durun, run, run, runrun*» ixiltzeke.

Auntza zoratu bearrean saltoka asi zan; baiña erletxoa beti berekiñ; lenengotik belarri inguruan, gero bizar gaiñean (lotsagabekeri aundiagorik zer?) gero belarrien barruan «*Durun, dun, runrun, run, run*».

«Beltxaran'eri» aaztu zitzaizkion aza ta inguruak, eta tximista baiño ariñago erten zuan baratzatik; eta erlea belarritik erten ez ba'zitzaion, noraiño juango ete zan «Beltxaran» gaiztoa, bere izuan? Jaungoikoak daki.

Martintxo, txakurra, oillarra ta astoa arri-turik gelditu ziran eurak eziñ egiñ izan zuten lana aberetxo txiki erei, erletxo zintzo arek egiñ zuala ikusi zutenean.

Erletxoa, batere arrokeri barik, agur esanda beste gabe egaztu zan sagar loratu baten gaiñera.

Astoak ben-ben auxe esan zien:—Ez du nonbait zer ikusi andirik izakien txiki edo anditasunak, egikera txiki edo andiak egin al izateko. Eta astoak egia.

Martintxok ipiñi zion auntzari soka lepotik, eta mendirantz jo zuten biak. Beste adiskideak erri, sakabanatu ziran, alkarri agur esanda.

*Arritokieta*